

ESKOLAN EUSKARARIK EZ




1. Azalpena

Euskararen historia ezagutzea garrantzitsua da ikasleek uler eta balora ditzaten hizkuntza biziberritzeko gaur egun egiten diren ahaleginak eta hartzen diren neurriak. Euskaraz egiteko egunero eskatzen zaien garaian, bestelako egoera ezagutzea hausnarketarako bidea izan daiteke.

2. Jarraibideak

“En la escuela no tengo que hablar vasco”

Hori da 1966. urtean maisuak Lontxo Zubeldia haurrari 1000 aldiz kopiaatzeko agindu ziona euskaraz egiten entzun zuelako. Gure aitona-amonen eskola garaian araua zen euskararen debekua. Honela kontatu zuen [Barandiaranek](#)¹:



“ Don Manuel Arresek - irakasleak - euskaraz hitz egiten harrapatzen zuen ikasleari eraztuna jartzen zion; eraztun hori ikasleaz ikasle pasatzen zen, hutsegiteak egin ahala; gu, orduan, beldur ginen eraztuna poltsikoan zuen ikaskidearengana hurbiltzeko, izan ere, ikaskide hori nahita euskaraz mintza baitzitekeen gurekin, guri hutsegitea eginarazteko eta zoritxarreko eraztun hori guri emateko; eraztuna zuenari ihes egiten genion; gauzak horrela, eraztunak helburu bikoitza betetzen zuen: eraztuna zuenari bakarrik sentiarazten zion, ikaskideak beregana hurbiltzeko beldur baitziren, eta bestalde, egurra jasotzeko beldurra ere hor zegoen, asteburuan eraztuna zuena zigortuta geratzen baitzen.”

Joxe Miel Barandiaranek Martin Ugalderi 1974an kontatutakoa

Asko dira “Ahotsak Ahozko Ondarean” proiektuak jasotako antzeko lekukotasunak:

¹ https://eu.wikipedia.org/wiki/Jose_Migel_Barandiaran



[Euskararen kontrako neurriak](#)² (8 min)

Carme Junyent hizkuntzalariak esan zuen bezala, hiztun batek bere hizkuntzaz mintzatzeari uzten badio ez da, besterik gabe, horrela nahi duelako. Munduko hizkuntza komunitateen historiak erakusten duenez, hizkuntzen heriotzen atzean debekuak eta bazterkeria ohikoak dira.

Norberaren hizkuntza mintzatzeko debekuak ondorio psikologiko larriak dauzka. Suay-Sangines psikologoek honela azaldu zuten (*Bat aldizkaria*, 2008, 69. zenbakia):

“Jakina da gerraostean eskolara joandako belaunaldiaren garain ohikoa zela ikasleak zigortzea euskaraz hitz egitearren. Baina, gainera, iseka egiten zitzairen gaztelaniaz hitz egiten zutenean ere, bai donuagatik, bai eskolan soilik entzuten zuten hizkuntzan hitz egiteko zailtasunak zituztelako. Beraz, zigorra jasotzen zuten bai jokabide bategatik, bai besteagatik. Jakina den moduan, animalien jokabide-ereduetan, sistematikoki zigor saihestezinak erabiltzen badira, horrek babesgabetasuna sortzen du, ikasitako babesgabetasuna (helplessness) esaten zaiona. Ulergarria da zigor horiei ihes egiteko jende askok eskola uztea, edo bere hizkuntza ez ezik, bere nortasuna ere ezkutatzen ikastea.

Urte askotan zehar, baita oraindik ere, gizarte-mailaz igotzeko, nortasuna ezkutatzea izan da jokabide errentagarriena. Eta nortasuna sistematikoki ezkutatzea onartzen denean, oso litekeena da horrek dakarren disonantzia kognitiboa murriztearen alde egitea, uko eginez. Eta hortxe oinarri dezakegu, baldintzetan oinarritutako ikuspegitik, norberarenganako gorrotoaren fenomeno ezaguna (...).”

Oztopoen gainetik, ordea, euskarak aurrera egin du, hiztun askoren aldeko borondateari esker. Euskararen azken hamarkadetako berreskurapen prozesua erreferentzia garrantzitsua da galtzeko arriskuan diren munduko komunitate linguistiko askorentzat.

Zuen ustez, gure hiztun komunitatearen zein ezaugarri izan daitezke interesgarriak munduko beste hizkuntza komunitate minorizatuentzat?⁽¹⁾

⁽¹⁾ Hizkuntza gutxitua edo minorizatua da beste hizkuntza baten presioarengatik

² <https://youtu.be/9kdZabnj1cU>

funtzio sozialak eta hiztunak galdu eta, ondorioz, hurrengo belaunaldiei transmititzeko mekanismoak igatuak dituen hizkuntza.

4. Iturriak

Wikipedia, [Euskararen debekua](#)³

[Ahotsak.eus](#)⁴, Euskal Herriko hizkerak eta ahozko ondarea

³ https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskararen_debekua#cite_note-20

⁴ <https://ahotsak.eus/>